Sarreran



Zatoz, Jauna! Gaur zai duzu mundua,
  zori gaitzez hain da hondatua!
Zatoz, Jauna! Zabal, otoi, zerua:
  Etor bedi zure erreinua!

Zatoz Jauna! Nausi bait da dirua:
  jendea maiz dauka zapaldua.
Entzun, Jauna, behartsuen oihua: **Etor**

Zatoz, Jauna! Hor gabiltza gauez gau:
  piztu gugan fedearen sua.
Zatoz, Jauna! Argi ezazu mundu hau: **Etor**

Zatoz, Jauna! Maitasunez gu bete:
  jendeek elkar ezin hartu dute.
Zatoz, Jauna! Zuk bat egin mundua: **Etor**

Zatoz, Jauna! Lokarriak zuk hautsi.
  Munduz mundu bihotzetan mintza.
Zatoz, Jauna! Ager zaitez ta jaitsi: **Etor**

Koroiaren inguruko abestia



Sortzez Garbiaren egunerako





Salmu-kanta:







3. eta 4. domeketarako:




ta E- rns- le-a. Ba- da- tor guk dogun Jaun Ja- be- a. Baz- tar-
tu bil- dur- ra lo- tsa e- ta i- sil- tze- a: Jau- na da su e- ta a- do- re-
a. Be- so- a da- ra- bil sal- ba- gi- le. I- zan-
go do- gu be- ti ba- bes- le. Ba- da- tor ta ur- te- io- zu-
e bi- de- ra. E- io- zu- e po- zik har- re- ra, bi- ho- tze ra. E- remu, er- bes-
te! i- ga- ro- ak di- ra. Ba- da- tor: Jau- na da! Hor i- txa- ro- pe-
na! Za- toz, bai, Zu, Jau- na!!!

JAUNARTZERAKO.....JAUNARTZERAKO

Zatoz, Jauna,
zatoz lurrera
zure herri hau
salbatzera.

1 Bakea ta justizia
bialdu mundura, Jauna;
zure jaiotzak gugana
bekar poza, zoriona.

2 Okerretatik zuzendu,
gaitz bideetatik aldendu,
gure kateak apurtu,
bide ilunak argitu.

3 Gorroto-bideetatik
aldendu gagizuz, Jauna;
alkar parkatu dagigun
emoiguzu maitasuna.

Kanta daigun guztiok
bihotza betean
gure Salbatzailea
etorri artean.

1 Gauaren erdian da
entzun dehadarra:
«Erne egon gaitezan
badator Senarra!»
2 «Nausia badator-ta
lapurra bezala:
Jaunaren zain guztiok
aurkitu gaizala.»

Salbatzailea, zatoz lehenbaitlehen,
zure zain, Jauna, gagoz gu hemen

1) Eidazu, Jauna, / zure bideak / ikastea, // zure bidexkak / jakitea.
2) Argitu naizu / egibidetik / ibilteko: // zeu zaitut nire / Jaun ta Jainko.
3) On eta zuzen / dalako, Jaunak / emon deutse // pekatariei / zuzenbide.
4) Apalak ditu / bide zuzenez / eroaten // nondik ibili / deutse esaten.
5) Errukia ta / leialtasuna / dauz bidetzat // ituna gorde / dabenentzat.
6) Jainko-zaleak/ Jaunak etxeko/ ditu hartzen, // bere ituna / deutse agertzen.

Jesusen Jaiotza, eguneko meza: 97.Salmoa